

## Beste iturrietatik

# Lineako partaidetza-foroak<sup>1</sup>

Interneten usuenetakoa, interaktiboenetakoa eta errazenetakoa den genero bat aztertzen da artikulu honetan; foroak, hain zuzen ere. Artikuluaren oinarrian ikaskuntza-ingurune birtualak suma daitezkeen arren, adierazitakoak hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntzaren bestelako egoeretara ere hedatu ahal dira, hizkuntza hori H1a zein H2a izan. Hizkuntzen ikasgelarako foro-motak proposatzen dira (orokorrak eta partikularrak, irekiak eta itxiak) eta berorien nolakotasuna zein erabilera adierazten. Bukatzeko, foroen abantailak eta arazoak aurkeztuko dira.

### Gako-hitzak

foroak, ikaskuntza-ingurune birtualak, Internet, komunikazio asinkronoa

## 1. SARRERA

Modu arruntean esanda, foro bat iragarki-taula baten modukoa da (Salmon, 2002) mezuak modu asinkronikoan trukatzeko, aurretiaz ezarritako parametro batzuen arabera (gaia, denbora, tonua eta interakzio-mota). Informatikaren aldetik ez dago alde handirik *foro* baten, *posta elektronikoko* baten edo *banaketa-zerrenda* baten artean, gaur egun oso desberdinak ikusten ditugun arren.

Foroa guztiei irekia izan daiteke, edo talde jakin bati mugatua; iraunkorra edo aldi baterakoa; gai zehatz bati buruzkoa edo irekia. Mezu guztiak biltzen ditu, eta kronologiaren, egilearen edo interakzioaren (beste mezu baten erantzuna, gai berria, etab.) arabera ordenatzen ditu. Horrez gain, prestazio gehiago izan ditzake, hala nola bisiten kontagailua, eranskinak txertatzea, bilatzailea, mezu bakoitzaren balorazioa edota trukea moderatzen duen pertsona administratzailea.

Hezkuntzako foro guztiek aukera hauek ematen dituzte:

1. Parametro orokor batzuk finkatzea (hasiera- eta amaiera-data; izaera publikoa edo pribatua; ikasleak foro desberdinetako taldeen arabera banatzea, etab.).
2. Ikasle bakoitzaren pribilegioak zehaztea (foroan nahitaez sartuta dagoen edo atera daitezkeen; eranskinak txertatu ditzakeen ala ez, jadanik bidalitako

<sup>1</sup> Jatorrizko artikulua: Cassany, D. (2017). Foros participativos en línea. *PDP Programa de Desarrollo Profesional*. Editorial Edinumen.


Beraien baimenez itzulia eta argitaratua.

mezuak ezabatu edo zuzendu ditzakeen edo epez kanpo bidali ditzakeen, etab.).

3. Foro-mota batzuen artean aukeratzea: erantzun edo gai bakarrekoak (ikasleak mezu bakarra bidaltzen du edo eztabaida lerro bakarrera bidaltzen ditu mezuak) edo anitzekoak (ikasleak nahi beste mezu bidali ditzake, eta eztabaida-lerro berriak ireki); irakurketa mugatukoa (ikasleak beti ikusiko ditu bere kideen mezuak) edo kontrolatua (bere mezua forora bidali ondoren baino ez ditu ikusten).

Foro-mota batzuk bereizten dira 1. irudiko eskeman.

### 1. irudia. Foro-motak.



Foro *orokorrek* hezkuntza-aldi osoan irauten du, eta alderdi orokorrek jorratzen ditu (programa, errekurtsioak, oharrak, luzetarako jarduerak). *Partikularra*, berriz, epe labur batean ireki eta ixten da (asteak, egunak), programako puntu zehatz bati lotutako jarduerak irauten duen bitartean. Foro orokorren barruan, foro itxiak mezuak irakurtzeko aukera baino ez du ematen, irekiak, berriz, mezuak idazten uzten du.

## 2. FORO OROKORRAK

*Ikasketa Ingurune Birtual* (IIB) askotan oso ohikoa den foro orokor itxi bat da *Oharrak* (1) deritzona. Irakasleek ikasleei eguneroko gorabeheren berri emateko erabiltzen dituzten oharrez osatzen da: eskolak bertan behera uztea, jardueren aldaketak, jarduerak entregatzeko datak, etab. Irakasle batek foro horretan idazten duenean sistemak mezua artxibatu egiten du, eta harpidetutako ikasle guztien posta-helbide partikularrera bidaltzen du.

Foro orokor irekiaren adibide tipikoa *Kafetegia* (2) da; gune informal bat da, non ikastunek edozein gairi buruz hitz egiten baitute, nahi duten hizkuntzan eta erregistroan. Irakasleak kide gisa parte hartzen du bertan, taldearen parte hartzea sustatuz soilik. Nahiz eta programaren parte ez izan, foro horiek laguntasuna sortzen dute, eta irakasleei ikasleak hobeto ezagutzen laguntzen diete.

Foro orokor irekiaren beste adibide interesgarri bat *Laguntza!* (3) da; berdinaren arteko lankidetzeta-foroa da, ikasgaiari buruzko zalantzak argitzeko. Irakasleak diskriminazio positiboko politikak ezarri ditzake (edo interdependentzia positiboa, lankidetzeta-ikasketaren terminoetan) parte hartzea sustatzeko; adibidez, ikaskideei foroan laguntzen dieten ikasleek amaierako nota hobetuko dutela ohartaraztea. Hori lagungarria izan daiteke irakasleak eman behar duen lineako arretaren zama arintzeko.

Irakasle batzuk foroaz baliatzen dira ikasturtean zehar *bitakorak*, *blogak* edo *portfolioak* sortzeko (4), proposamen didaktiko hauetako batzuei dagozkien baliabideak (Blogger, Mahara edo Google Sites, besteak beste) teknikoki konplexuagoak diruditean. Mezuak eranskinekin edo blog/portfolioko materialekin foro bateko linea pertsonalera bidaltzeko teknika errazagoa da lineako gune autonomo bat ireki eta kudeatzearena baino. Horrela, “ikasturtearen gogoeta-egunerokoa” egin daiteke, non ikasleek klaseari buruzko asteko iruzkinak idatzi ditzaketen, edo, bestela, “irakurketa baten egunerokoa”, non ipuinak edo liburu edo bideo bat iruzkindu baitaitezkeen ikusi ahala.

Azkenik, foro orokor bat ere erabil dezakegu ikasturtean zehar luzatuko den jarduera baterako (5), hala nola hilean galdera bat edo bi galderari aldizkako erantzun irekia ematea, klaseko gaii buruz ikasle-taldearen arteko tutoretza, etab.

### 3. FORO PARTIKULARRAK

Foro partikularrak jarduera puntualak eta laburrak dira, ikasturtearen une jakin batean kokatuak, berariazko helburu eta edukiekin. Hona adibide batzuk:

- *Bateratze-lana* (6). Ikastunek modu naturalean ematen dituzte beren ideiak gai bati buruz, ideia-jasa baten edo testu-iruzkin baten moduan, arazo bat konpontzeko, informazioa bilatzeko edo ikuspuntuak partekatzeko.
- *Galdera baloratuak* (7). Iturri batetik abiatuta (idazkia, argazkia, bideoa) ikastun bakoitzak bere erantzunak bidali ditzake forora, aurretiaz ezarritako galdera batzuei buruz; gero ikaskideen erantzunak irakurri behar dira, erantzun ondoren baino ezin baitira ikusi, eta jarraian bigarren jarduera bat ebatzi behar da: erantzunak baloratzea, onenak aukeratzea edo iruzkintzea.
- *Lankidetzeta-berrikuspena* (8). Binaka edo hiruak, ikastunek beren idatziak trukatzeko dituzte, eta foro eskusibo batean iruzkintzen dituzte, idazketa-tailer batean bezala.
- *Eztabaida antolatua* (9). Egiazkoak edo gezurrezkoak izan daitezkeen tesi, galdera edo baieztapen batetik edo batzuetatik abiatuta, ikastunek aldeko edo aurkako argudioak bilatu eta foroan azaltzen dituzte. Modu ordenatuan egin behar dute, kide baten mezuaren azpian erantzunez, edo eztabaida lerro berri bat irekiz, datu desberdinak ekartzen baldin badituzte.

### 4. ABANTAILAK ETA ARAZOAK

Oro har, foroa onuragarria da hizkuntza-hezkuntzarako, hainbat arrazoiengatik. Komunikazio egonkorra, erraza eta ordenatua da, ikasleek ikasturteko edozein unetan kontsultatzen dutena (Rice IV, 2007); *Oharrak* foroak kronologikoki ordenatzen du eta leku publiko batean kokatzen ikasturtean zehar gertatzen dena; *Kafetegiak* aukera ematen du unean uneko gai interesgarriak modu informalean iruzkintzeko, eta *Laguntza!* erakoak ikasturteko arazoak ikaskideen laguntzarekin konpontzeko aukera ematen du. Horrez gain, egiazko komunikazio-gunea da foroa, idazkera zein helburu-hizkuntza egiazko hartzaileekin eta helburu jakinekin praktikatzeko; dinamikoa den arren, testuak planifikatzeko eta argitaratu aurretik gainbegiratzeko aukera ematen du, eta horrek segurtasuna ematen dio ikastunari. Gogoan izan behar da teknikoki erraza dela, eta ez duela ekipo sofistikatuen eta sare-konexio azkarren beharrik.

Baina sortu litezkeen zailtasunak ere kontuan izan behar dira. Ez da komeni aldi berean hainbat foro irekita edukitzea, izan ere, ikasleak nahastu egiten dira, eta mezu okerrak bidaltzen dituzte; foro bakoitzean parte hartzen duten ikasleen kopurua mugatzea komeni da (edo bidali daitezkeen mezuen kopurua) saturazioa saihesteko, eta bidalitako mezuak gainbegiratu behar dira, eta agian mezu desegokiak ezabatu.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

### Bibliografia

Cassany, D. (2015). Forums and Chats to Learn Languages: Functions, Types and Uses. In R. Hernández eta P. Rankin (Ed.), *Higher Education and Second Language Learning Promoting Self-Directed Learning in New Technological and Educational Contexts*. Bern: Peter Lang, (135-158 or.)

Rice IV, W. H. *Moodle Teaching Techniques. Creating ways to use Moodle for constructing online learning solutions*. Birmingham: Packt Publishing.

Salmon, G. (2002). *E-tivities. The key to active online learning*. London: Kogan Page Limited. Espainierazko bertsioa: (2004). *E-actividades. El factor clave para una formación en línea activa*. Barcelona: UOC.